

# LK Bolsa Japon

## EZAUGARRI OROKORRAK

Fondoa kategoria honetakoa da: Inbertsio fondoa. ERRENTA ALDAKOR INTERNAZIONALA. Fondoaren eta inbertitzailearen arrisku-profila: 6 (1etik 7ra bitarteko eskalan). Kudeaketa-helburua: Gestioaren erreferentzia Nikkei 225 Index (Tokyo) indizearen errentagarritasuna da. Inbertsio-politika: Fondoak esposizio osoaren % 75 eta % 100 bitartean, zuzenean edo zeharka ( % 0-100 artean inbertsio kolektiboko finantza-erakundeen bidez), Japoneko errenta aldakorra izango da, kapitalizazio maila edozein izanik ere, eta edozein sektorekoa izanda. Gainerakoa errenta finko publikoan eta/edo pribatuan inbertituko da (diru-merkatuko tresnak barne hartuta, likidoak badira, baita gordailuak ere), euroguneko herrialdeetako jaulkipenetan. Errenta finkoko jaulkipenek –gordailuak eratzen dituzten erakundeak barne hartuta– gutxienez kreditu-kalitate ertaina izango dute (gutxienez BBB-), edo Espainiako Erresumak unean-unean duena, hori baino txikiagoa bada. Edonola ere, erakunde gestoreak aktiboen kaudimena ebaluatuko du, eta kaudimena ezin da lehen aipatutako ratinga baino txikiagoa izan. Fondoak % 100raino inbertitu ahal izango du inbertsio kolektiboko finantza-erakundeen bidez, aktibo egokiak badira eta harmonizatuak. Inbertsio kolektiboko finantza-erakunde ez harmonizatuetakoa inbertsioa ez da Fondoaren ondarearen % 30 baino handiagoa izango. Gestorako taldekoak izan ala ez. Errenta finkoko zorroak urtebetetik beherako iraupena izango du, batez beste. Fondoaren dibisa-arriskuarekiko esposizioa % 30 baino handiagoa izango da. Deribatuen bidezko merkatu-arriskuarekiko esposizioa ondare garbiaren zenbatekoa izango da gehienez. Ondarearen % 35etik gora inbertitu ahal izango da Europar Batasuneko estatu batek, autonomia-erkidego batek, toki-erakunde batek, Espainia kide duten nazioarteko erakundeek eta Espainiakoa baino kaudimen handiagoko estatuek jaulki eta abalatuak baloreetan. Zehazki, ehuneko hori une jakin batzuetan gainditzea aurreikusten da, merkatuaren egoerak hala eskatzen duenean, alegia. Deribatuen merkatu antolatuetan negoziaturiko finantza-deribatuetan jardun ahal izango da, eskurako inbertsioen inguruko arriskuei estaldura emateko xedez eta inbertsio-helburuetarako. Eta deribatuen merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren finantza-tresnekin ere egin ahal izango dira eragiketak, estaldura emateko xedez eta inbertsio-helburuetarako. Informazio gehiago behar izanez gero, Fondoaren liburuxka xehatua kontsultatu. Dokumentazioa Hiruhileko txostenak

- 4.. Hiruhilekoa 20 - 3.. Hiruhilekoa 20 - 2.. Hiruhilekoa 20 - 1.. Hiruhilekoa 20

Seihileko txostenak

- 2.. Seihilekoa 20 - 1.. Seihilekoa 20

Informazio liburuxka

Memoria

- Memoria

